

# Emakumeen lana Nafarroako Erriberan

**Carmen Díez Mintegui**  
EHUko antropologia irakaslea

Artikulu hau Nafarroako Erriberako eskualde bati buruzkoa da: Ebroko Erribera bezala ezagutzen den eskualdea. Lan honek 1993an doktoretza-tesi bezala aurkeztu zen azterlan sakonagoa du oinarritzat. Antropologiaren ikuspuntutik, Euskal Herriko bi zona aztertzen zituen: Erriberako eskualde hau eta Gipuzkoako hiriburua eta gertuko herriak biltzen dituen Donostialdea. Oraingoan, landa-eskualde batean ohikoak diren etengabeko dinamismoa eta aldaketa aztertu eta nabarmenduko dira.

The article is concerned with a region within the Riverside of Navarre, named Riverside of Ebro. The work is based on a more extensive one, presented in 1993 as a Doctoral Thesis. From the Anthropology's point of view, it studies two zones of the Basque Country: the Riverside region and the one which assembles the capital of Gipuzkoa (San Sebastian) and its surroundings (named Donostialdea), analyzing and pointing up the dynamism and changes which are very common in a countryside land.

## Esparru fisikoa

Tradizionalki Nafarroako foru-lurraldea hiru eskualde handitan zatitu ohi da: Mendialdea, Erdialdea eta Erribera. Definizio hauek, lurraldean, Iparraldetik Hegoaldera doan kokapen espazialari dagozkio.

Nafarroako Erribera bezala ezagutzen den eremu zabala, 2.000 km<sup>2</sup> ingurukoa, zenbait zonatan zatituta dago eta gertuko udalerriak biltzen ditu, hala geografari nola kidesunari dagokienez. Eskualdeak banatzeko erabilitako irizpideak Navarra 2000 (Ardaiz 1980: 154-197) izeneko proiektuan jaso dira. Zatiketa horren arabera, artikulu honetan landuko den zona Ebroko Erribera bezala ezagututako zona da eta honako herrialde hauek osatzen dute: Andosilla, Azagra, Karkar, Lerin, Lodosa, Mendabia, San Adrian, Sartaguda eta Sesma (ikus mapa).

Caro Barojak (1984: 353) Erribera honela deskribatu zuen:

Colinas de yeso inhóspitas, secanos cerealistas, cintas verdeantes de los regadíos aledaños a los cursos del agua, pueblos grandes y con emplazamientos defensivos, horizontes dilatados, llanuras amplias y despejadas sin árboles, aridez<sup>0</sup>.

Zentzu zabaleko definizioa da eta errealtateari egokitzen bazaio ere, estatikoen da. Erriberan arreta erakartzen duena urteko zikloan jasaten duen aldaketa da. Kontraste handiko eguraldiak sortarazten du aldaketa hau; esaera herrikoikiak dioen bezala «en invierno se hiela la Virgen y en verano se asa el palio» 'neguan ama


birjina izozten da eta udan palioa egosten'. Lurralde hauek barazkien produktoria dedikatzeak, lehorreko lurak zein ureztatuak edukitzeak, eta produktio hori klimatologiaren menpe egoteak zenbait aldaketa kromatiko sartu dute eta honek urtean zehar paisaiak oso fisonomia desberdina izatea ahalbidetzen du.

Nafarroako historiagileak (Majuelo 1989; Pérez Agote 1989; Huici et al. 1982) bat datoz honako hau adieraztean: emigrazioak lurraldean ia hirurogeiko hamarkada arte izan den desoreka "arautzeko formula" gisa funtzionatu du, ez duelako landa-lurretan sortzen diren populazio-soberakinak zurgatuko lituzkeen industrializazioa garatu. Formula honek denboraldi eta zona batzuetan besteetan baino intentsitate handiagoarekin funtzionatu du. Guztiek jotzen dute Ebroko Erribera zona berezizat, nahiz eta nekazaritzakoa izan, beste landa-zonen despopulaketa-prozesu bera jasan ez duelako eta, kasu gehienetan txikia eta familiena bada ere, industria hori garaiz sartzeak emigrazioa geldiarazteko balio izan duelako.

Baieztapen hauei eusteko eskualde honetako herrien populazioak mende honetan izandako bilakaera ikus daiteke (1. Taula).

Erriberako eskualde honen herrien artean, San Adrianen hazkunde etengabea nabarmena da, gaur egun jarraitzen duena. Herri hau, bere kokapen estrategikoa dela-eta, «herri nekazari/industrial hauen jarraipideak ezartzen dituen giza eta hiri gune» eta «ureztaketez gurutzatutako lurzoru emankor eta produktiboko lurralde lauak, makina itxiztaile xumeenetatik

0. Itz.: «Igeltzuzko mendixka latzak, zerealak hazten diren lursail-lehorrak, ubideen parean doazen ureztaketen zinta berdexkak, gotorlekudun herri handiak, horizonte dilatatuak, zuhaitzik gabeko lautada zabalak, idortasuna».



1. Taula. Ebroko Erriberako populazioaren garapena

	1900	1920	1940	1960	1970	1981	1986
ANDOSILLA	1.750	2.046	2.312	2.263	2.540	2.396	2.475
AZAGRA	1.797	2.389	2.697	2.925	3.100	3.069	3.172
KARKAR	1.548	1.770	1.627	1.591	1.408	1.287	1.165
LERIN	2.315	3.040	3.303	2.927	2.531	2.138	2.015
LODOSA	3.115	3.797	4.130	4.292	4.270	4.455	4.412
MENDABIA	2.442	3.018	3.483	3.152	3.344	3.378	3.397
SAN ADRIAN	959	1.337	2.619	3.496	4.111	4.362	4.603
SARTAGUDA	785	1.113	1.317	1.449	1.441	1.386	1.431
SESMA	1.322	1.955	1.881	1.889	1.828	1.588	1.419
GUZTIRA	16.033	20.265	23.369	23.984	24.573	24.059	24.089

Iturria: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Populazioa, 1900etik 1986ra. Nafarroako Gobernu. Artikulugileak berak landua.

goi-mailako teknologiao fabriketara doan kontserba-industriekin gurutzatzen direneko eremua»<sup>1</sup> bezala deskribatu da, eta deskribapen hau Lodosa, Mendabia edo Azagrari ere aplikatu da. Era berean, lorpen hauek ez dira plangintza zehatz baten emaitza izan, bertako biztanleen bulkadaren emaitza baizik, baliabide naturalak eta "errosarioko garapena" deritzon ondoko elaborazioa bateratzen jakin dutelako.

Era berean emakumeek produkzio-sektoreetan duten partehartze altua eta goi-mailako kontsumoko lanarekin duten gehiegizko lotura azpimarratu beharra dago, famili errenta eskuragarriko maila altua erakusten dutelako. Familien ahalmen ekonomikoak komunitate hauen kanpo-espazioaren (kalea) eta barne-espazioaren (etxeak) eraldaketa ahalbidetu du azken hogeita bost urteotan, eta informatzaile batek esan duenez, «atzerantz itzultzea gaixotzea da; 1965etik aurrera arnas hartzen hasi ginen»<sup>2</sup>. Laborantzako

abereak traktore eta autoez ordezkatu dira, kaleak zoleztatu dira eta etxeak berriro eta azken aurrerapenekin hornitu dituzte.

Esparru fisikoaren deskribapen hau amaitzeko, esan beharra dago Nafarroako hiriburua, Iruñea, Erriberako herri hauetatik 80 kilometro ingurura kokatuta dagoela, eta hiriburua bertan izateak, nahiz eskaintzen dituen zerbitzuak, puntu garrantzitsuak direla herri horietako biztanleek bizitza aldatzeko, landa uzteko, lan bat bilatzeko, seme-alabek unibertsitate-ikasketak edo ikasketak teknikoak eskuratzeko, medikuntza-kontsultetara joateko edo erosketak egiteko aukera planteatzerakoan. Hala eta guztiz ere, zona honetako biztanleek ere aipatutako iharduerak Lizarran, Calahorran edo Logroñon egiten dituzte, Iruñea baino gertuago daudelako (ikus mapa) eta autoak aztertutako herrietako pertsona helduei mugikortasun handia ematen dielako.

1. Definizio hau Arau Subsidiarioen Idazle Taldeak egin zuen 1978an bereziki San Adrian aztertu zuen lanean. Esandako azterlana aipatutako herriko Udalaren jabetza da eta berau aztertzeko bidezko baimena eman zidaten.

2. Emakume informatzaile baten hitzak.

Mugikortasun hau garrantzitsua da hirietan sortzen diren bizitza eredu anitzen aldakortasuna gertutik ezagutzea ahalbidetzen duelako. Hala ere, zonak duen nolabaiteko behin-betiko "isolamendu fisikoak" muga erreal eta irudimenezkoak sortarazten laguntzen du "gure herria" denaren eta "Iruña", "Lizarra" eta "Calahorra" direnaren kontzepzioan. Noski, kontzepzio hau ez da estatikoa eta gizarte-egituran eta pertsonen jokabideetan zenbait aldaketa sortzen denean aldatzen dela egiaztatu dugu (pertsona desberdinek gaur egun San Adrianen denetatik dagoela esan ziguten: bananduak, dibortziatuak eta homosexualak) baina, halere, bizitza eta ideologia eredu tradizionalagoei eustean eragina du, hirietan egon daitezkeen aukera anitzen aldean.

### **Landa-espazioa: emakumeen lanaren ikusgaitasun ofiziala**

Enpleguaz hitz egiterakoan zenbait ezaugarritan pentsatzen da: nolabait, behin-betiko iraupena duen lan-kontrata izatea (bizitza osorako, praktikoki, funtzionaritze publikoan bada), etxetik kanpo lan egitea, legeak edo lan-hitzarmenek emandako ordutegi eta erritmo kolektiboetan. Eredu nagusi hau Industri Iraultzarekin zabaldu zen eta bertara egokitzen zaizkio hala familiaren erritmoak, nola gizarte antolamendu osoa (Piotet 1987).

Hala eta guztiz ere, enpleguaren kontzepzio hau hobeto zehaztu beharra dago, lan-espazioa konfiguratzeko, oraindik ere gehiengoak landa produktioa eta honi lotutako industri produktioa artikulatzen duen zona honetan (nahiz eta arian-arian aldaketak izan).

Kontuan hartu beharreko faktore nagusiak hauek dira: emakumeen partehartzea nekazaritza lanetan —estatistika ofizialetan agertzen ez badira ere— eta alokairuz ordaindutako lanaren ezaugarri bereziak, gehi etxe unitateen estrategia ekonomikoen dinamika (urteko nekazaritza zikloaren menpe egotearekin lotuta). Emakumeek ustiapen familiarrean egiten duten lanari, lan familiarren benetako izaera aztertzen duten lan desberdinak garatzen diren lerrotik ekin behar zaio (Whatmore 1989; Narotzky 1988) eta nekazaritza lanbidea irudi maskulinoarekin lotuta izatearen arrazoiak aztertu behar dira (Vicente-Mazariegos 1981).

Esparru ekologiko honetan, nekazaritzako zereginak garatzen diren moduak emakumeen partehartzea honela definitzen duen tradizioa hausten du: «berez emakumeenak izan ziren jabariak —etxeak eta sukaldeak— baratz eta animalia txikietaraino zabaltea; azken hauek familiarentzat elikagaiak izango dira eta gehiegizko badi- ra saldu egingo dira» (Canoves et al. 1989: 46). Definizio hau baliozkoa izan daiteke Euskal Herriko bestelako landa-zonetarako ere (del Valle et al. 1985) baina ez ordea, ikasten ari garen zonarako, gero ikusiko dugun bezala.

Kontserba fabriketako lanak, nekazaritza zikloari lotuta, beste hiri zonetako eskulangintza fabriken aldean ere ezaugarri desberdinak ditu: karpainen arabera lan egiten da (urteko sasoi batzuetan); oro har, ez dira kontratu-legeriaren menpe egindako lanharremanak izan 1985era arte, Kontratazio-legea aldatu zen arte; emakume batek fabrika batean baino gehiagotan lan egitea erlatiboki ohikoa da, urtearen edo garaiazen arabera. Faktore hauek eragin zuzena dute enpleguare-

kin ezartzen diren erlazio motekin eta, azken finean, emakumeak langile direla jabetzearekin.

Datu estatistiko hauek aztertzerakoan, berezitasun garrantzitsuak ikus daitezke datuok, emakumeen iharduera, langile alokairudun gisa, definitzean, iharduera hori isladatzen duten moduan. Eta honek gure susmoa egiaztatzen du: emakumeen ihardueraren ikusgaitasuna, datu ofizialen arabera, ez dago nekazaritza zereginekin bakarrik lotuta, baita nekazaritza-industri sektorean egindako lanarekin ere, duela gutxi arte behintzat.

1981 eta 1986ko erroldetako datuak konparatzean (2. Taula), udalerr

guztietan gehikuntza nabarmena ikusi zen, "langile" gisa zein langabezian, "lehenengo lanaren bila" edo enplegu bat izan ondoren, agertzen zen emakume kopuruari zegokionez. Honek esan nahi du, eskualde osoa ikusita, gizonezkoen iharduera-tasak egonkor daudela, % 56ren inguruan, eta emakumeenak 1981ean % 14 izatetik, 1986an % 24 izatera igaro zirela. Honela, gaineratutako taulan ikus daitekeen bezala, iharduera-tasek udalerr txikienetan izugarritzko igoera izan zuten, eta neurri txikiagoan, Lodosan eta San Adrianen. Herri hauek langile-populazio ugariagoa dute eta lan-baldintzak, lan-kontratazioari dagokionez, beste tokietan baino neurri handiagoan indarreko legearen menpe egon dira.

2. Taula. Iharduera-tasak

	1981		1986	
	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
ANDOSILLA	10,69	58,96	19,04	56,97
AZAGRA	12,66	58,58	31,51	55,36
KARKAR	7,34	59,03	20,93	57,74
LERIN	8,94	55,97	15,8	56,8
LODOSA	15,94	49,19	21,6	51,27
MENDABIA	6,42	56,19	23,94	57,36
SAN ADRIAN	27,71	57,22	31,4	55,77
SARTAGUDA	7,19	58,46	16,33	53,12
SESMA	7,11	54,8	13,28	57,81

Iturriak: Populazio-erroldak. Autoreak berak landua.

Analisia egiteko, “emakume aktiboan” taldea kendu egin zen eta aldaketa “aldi baterako izaeraz edo behin-behineko izaeraz lan egiten duten pertsonen” kategorian gertatzen zela ikusi zen; aktibo bezala agertzen diren emakumeen erdiak baino gehiago baldintza hauetan daudela kontuan hartu beharra dago. Gainerakoek, % 27k, izaera finkoz egiten dute lan eta % 17a “langileak kontratatzen ez dituen enpresaria edo profesionala” kategorian agertzen da. Iharduera hau, etorkizunean norberaren etxean saltzeko izango diren barazkiak prestatzea eta potetan sartzea izan ohi da. “Langileak ez erabiltzea” faktorea ez da zehatza, egiazta daitekeen bezala, emakume horrekin, senide gertu edo urrunekoek lan egiteaz gain, auzoko beste emakumeek ere lan egiten dutelako, noski, beren lana orduka edo ihardunaldika kobratuz.

Datu hauekin batera, esan beharra dago, 1985ean, bi edo hiru asteko denboraldi laburreko legezko lan-kontratua zabaldu zela, edo finko/eten izeneko formula, urte osoan 180 lan egun osatuz gero, langabezi laguntza kobratzea ahalbidetzen zena<sup>3</sup>. Honen ondorioz, lan honi buruzko kontsiderazioa aldatu egin da, gure aburuz, hala emakumeengan, nola beste pertsonengan, adibidez, eroldak lantzen dituzten udal-langileen kasuan. Langabezia kobratzea –“etxean zeuden bitartean dirua jasotzea”– zahartzaroen erretiroa eduki ahal izatea, edo nekazariak azken urte hauetan kobra-

tzen hasiak diren pentsioak, gure iriziz, pertsonen jarreretan, erabakietan eta langileek norbanako gisa duten pertzepzioan eragin garrantzitsuak dituzten aldaketa-agenteak dira<sup>4</sup>.

Bada datu horiek honela interpretatu dituenik: «Gizartearen mentalitatea aldatu egin da eta orain, errenta-maila altuagoak lortzeko, emakumeek lan egitea nahiago da; honek,aldi berean, jaiotzen jaitsiera dakar» (Sánchez Barricarte 1990: 74). Hala eta guztiz ere, ikusi dugun bezala, datu estatistikoak eta udalerrri hauek<sup>5</sup> kokatu behar diren testuinguruko datuak aztertzeak bat-bateko “mentalitate aldaketa” honentzat azalpen ugariago eta hobea dakartza.

### **Etxe taldeen estrategia ekonomikoak**

Etxe unitateen estrategia ekonomikoak kontuan hartzearen ikuspegia izatea garrantzitsua da emakumeek landa espazioan egiten duten lanaren garrantzia aztertzeko. Zona honetako lanaren ezaugarriak nekazaritza-emakumearen definizioari egokitzen zaizkio: “lan egiten duen emakumea –familian edo lan-esparru soilean– nekazaritza-ustiapenetan edo/eta nekazaritza-elikagaien landa-produkzioan» (Vicente-Mazariegos 1989). Europako landa-testuingurua aztertzean, autore honek Euskal Herriko zona honen errealitatean sartzeko eta berau kontrastatzeko zenbait arazo

3. PSOEren gobernuak 1992ko udan sinatutako “dekretazoak” aukera hau ezereztu zuen.

4. Adibidez, Nafarroako Pirinioan erretiro-pentsioa kobratzeak gurasoek familien lursailen kontrolari buruzko jarrera aldatzea ekarri du; horrek seme-alabei lehen baino askoz ere gazteagoak direnean lursailak kudeatzea eta beren ardura hartzea ahalbidetzen diete, bai eta tentsiorik gabeko famili harreman desberdinak izatea ere (Cosin et al. 1992). Erriberan, emakumeek langabezia kobratzeak etxe-ekonomian eragina du eta, ondorioz, emakumeen lanaren eta ekarpen ekonomikoaren balorazioan.

5. Nafarroako Gobernuako Estatistika-Zerbitzuko Departamentuko Andrés Valentinek eta bere lankideek emandako laguntza bereziki eskertu nahi dut.

baliagarri planteatzen ditu. Bere azter-lana, aztertutako multzo osoari dago-kion eta honela dioen premisatik abiatzen da: «emakumeak familiako edo alokairu bitarteko nekazaritza-lanean izan duen ekarpen erabakigarria eta estatistika ofizialetan duen islapen urria egiaztatzea»-ren paradoxa izugarria (ibid. 207).

Izan ere, Erriberako gizonak emakumeek egindako izugarrizko lana aipatzen dute eta «gizon bakar batek ezin duela ezer egin» azpimarratzen dute. Emakumea “oso langilea” izatearen balorazioa oso argia da, hala gizonen aldetik, nola emakumeen eta gizarte-testuinguru osoaren aldetik. Informatzaile batek esan zigun bezala, bera gazte zenean familiako emakumeek honako hau esaten zieten gizoni: «hori bai zorte ona; egunez arra eta gauzez emea duk». Esaldi argia da eta esanguratsua oso. San Adriango 1990eko Jaien Programan agertzen zen poema baten bertsoek ere irudi hau egiaztatzen dute:

Pueblo de labores campesinas  
que cierra el ciclo esparraguero,  
descanso de manos féminas  
en el marco conservero.

(...)

Esparragoaren zikloa ixten duen  
herri nekazaria,  
emakumeen eskuen atsedena  
kontserbaren arloan<sup>6</sup>.

Gaur egungo gizartean agintzen duen mentalitate kapitalista merkatuzaleak eta bizi-kalitatearen galdakizunak, zentzu zabalean –seme-alabek hezkuntza izateko eskubidea, etxe-erosotasunak, kontsumoko maila altuak– estrategia familiarak eta etxeko taldeen behar ekonomikoak egitura-

tzen ditu. Zona honetako gizarte-antolamendua konfiguratzen laguntzen duen datu esanguratsuetako bat, ezkongabeen portzentaia baxua da; Karkarren, adibidez, hogeita hamarretik berrogeita bostera bitarteko emakumeen % 95 ezkondua daude; gizonen artean indize hau pitin bat baxuagoa da. San Adrianen, adin talde horretako emakume ezkonduen portzentaia % 85ekoa da, eta gizona % 90 inguruan dago.

Nekazaritzaren menpe dauden gizonak –berezko produkzioa dutenak edo alokairudun gisa– urteko zikloaren bitartez gidatzen dira urtea ekonomikoki ona edo kaskarra izan den jakiteko. Esparru etnografikoaren deskriptiotik jakin dezakegun bezala, zona honetako nekazaritza lursail lehorretan eta ureztatueta egiten da; lursail lehorretan zerealak eta mahatsondoak lantzen dira; eta lursail ureztatueta, kontserba-industriaren hazkuntzaren oinarri izan diren barazkiak eta fruituak: esparragoa, melokotoia, pikiloko piperra eta tomatea. Patata eta tipula ere landatzen dira, baina Europako beste herrialdeen konpetentziak gaur egun, zenbait gai produzitzea oso errentagarria ez izatea ekarri du. Adibidez, 1990ean, patata, zona honetan 11 pta/kg ordaintzen zen, eta kopuru honek ez zuen inbertsioa ez eta esfortzua ere konpentsatzen, Frantziako eskaintza, patata garbitu eta 25 kg-ko zakutan sartua, 17 pta/kg-koa zelako eta, Erriberako nekazariak ezin dutelako horrelako eskaintzekin lehian sartu<sup>7</sup>.

Zona honetako nekazariak garai latzetan bizi dira une honetan eta hau are eta okerrago bilakatzen da zorpe-

6. Poema “bere herria maite duen batek” sinatua da.

7. 1992ko abuztuan, “patataren gatazka” deritzona hasi zen Nafarroan eta Estatuko bestelako komunitateetan. Arazoaren erroa 1990ekoan izandako berbera zen.



tzea gehitzean, kasu gehienetan, banakako mekanizazioaren eta nazioanitzeko kapitalak ezarritako prezioak dituzten ongarrri eta herbiziden erabile-raren menpe daudelako. Bestalde, ezin izan dituzte hain indartsuak diren tartekarien oztopoak gainditu. "Kanpainak" deritzenak zona honetako oinarrizko produkzioak jasotzen diren une puntualak dira. Hauen artean garrantzitsuena urte askotan esparragoa izan da, produktu miragarria ere deitu ohi zaiona; gero, pikiloko piperra deritzona dator, eta azkenik, aipatutako gainerako produktuak. Esparragoaren bilketa martxoan hasten da eta ekainearte irauten du; uztailean zenbait melokotai-barietate jasotzen da; abuztuan, patata, tipula eta bestelako fruituak; eta irailean, tomatea, piperra eta mahats beltza, ardoa egiteko bereziki destinatzen dena.

Lan hauekin tartekaturik, neguan jasoko diren zenbait produktu ereiten dira, adibidez azalorea, Azagran izozketa-industriak ezarri zituztenetik harrera handia izan duena, baina nekazari adinekoenei arazoak ematen dizkiena, abenduan eta urtarrilean jasotzen denez gero, hotzak eta hezetasunak hori egitea galerazten dietelako.

Martxotik urrirarte, urteko zikloaren zeregin garrantzitsuenak jarraian egiten dira eta katea hau herriko festek dirauten astebetean bakarrik eteten da. Esparragoan urte ona izateak urte

osoan arazo ekonomikorik gabe aurrera jarraitzeko aukera moduko diru-kopurua lortzea esan nahi du. Adibidez, 1989an, zortzi errobatan (erroba bakoitza 898 m<sup>2</sup>-koa da) nekazari batek 4.170 kg atera zituen eta 350 pta/kg-tan saldu, beraz, ia milioi t'erdi pezeta jaso zituen. Produkzioko urte on batek hori guztia enbotatzeko fabrikari lan egitea ekarriko du eta emakumeek, ezarritako alokairua irabazteaz gain, aparteko ordu asko lan egin dezakete<sup>8</sup>.

Dirua etxeko unitate batean sartzea –nekazaritza-sektorean– produktuen salmentan lortzen denaren arabera da eta, norbaitek egiten badu, kontserba fabrikari lanaren arabera. Zona honetan bizitzen geratzen diren eta nekazaritzaren menpe egongo diren emakumeen lanerako aukera, lursailak edo fabrika izango dira. Emakume helduenek senarrarekin lan egingo dute lursail ureztatuaren zereginetan<sup>9</sup>, etxetik urrun kokatutako ibai-ertzetako dagozkion lursailetan<sup>10</sup>. Lehen adierazitako ureztaturiko lursailtako produktuek dedikazio-ordu anitz behar dituzte eta, urtekoa denez gero, eskulan ugari bilketarako.

### **Lan-espazioen antolamendua**

Alde batetik, Karkar eta San Adriani buruzko zenbait datu jakitera emango ditut, landa-izaeraren eta aldaketaren

---

8. Beste produktuekin gertatu den bezala, esparragoa beste zonetatik ekartzeak (Extremadura, Perú) bertako produkzioa errentagarria ez izatea ekarri du. Gaur egun, esparragondo asko erauzi da eta produktoreak horien ordez bestelako landaketak ezartzen saiatzen ari dira. Era berean, negutegiaren ezarpena ugaltzen ari da.

9. Lursail lehorretan zereala makinekin biltzen da; langile gutxi behar dira eta emakumeek ez dituzte traktorak gidatzen, kasu ezohikoetan izan ezik. Oraindik ere eskuz egiten den mahats-bilketan parte hartzen dute, nahiz eta mekanikoki jaso daitezkeen mahatsondoak instalatzen hasiak diren.

10. Arestian, zona honetan, lursail kontzentrazioak ez dela egin aipatu dugu. Beren jabetzapeko bost lursail edo gehiagoren artean, batzuetan 7 edo 8 kilometro dago. Eta norberaren etxetik, gutxienez, 3 km-tik gora izaten da. Datu hauek, lehen esan bezala, emakumearen landa-okupazioaren eredu tradizionaletik aldentzen ari garela berresten dute.

bi muturrak ordezkaten dituztelako; eta bestetik, Andosilla eta Azagrakoak, kontrasterako elementu gisa, zona honen ikuspegi osoa izaten lagunduko digutelako. Karkarren "okupatuta" dagoen populazio osotik, 1986ko datu estatistikoaren arabera, % 74 gizonak dira eta % 26 emakumeak. Gizonezkoen % 59ren lanbidea "nekazaritza edo/eta abelazkuntza ustiapenak bere kontura kudeatzea" da. Gizonek osatutako taldearen % 18 alokairudun bezala agertzen da, erdia nekazaritza-ustiapenetan eta beste erdia elikagaien kontserban, ardogintzan edo antzeko ihardueretara dedikatutako establezimenduetan. Okupatuta bezala agertzen diren gainerako gizonek -% 20 inguru- beren konturako iharduerak egiten dituzte: garraioak, mekanika-lanak edo bestelako zerbitzuak.

Datu ofizialetan langile bezala agertzen diren Karkarreko emakumeen % 67 elikagaien sektorean alokairudun gisa daude, hau da, herri honetako edo inguruko kontserba-fabriketan; hiru emakume besterik ez dira agertzen nekazaritza-ustiapeneko titular gisa eta gainerakoak etxeko lanak egiten edo Administrazioan daude. Hamazazpi eta hirurogeita hiru urteko emakume guztien herenak enplegu bat badute, baina azpimarratzekoa da berrogei urtetik beherako emakumeen % 55ek lana duela eta portzentaia hori % 15era jaisten dela adin horretatik aurrera. Datu hauen esanahia geroago aztertuko dugu.

Beraz egoera hau da: Karkarreko populazio okupatuaren % 51a lehen sektorean dago eta horren % 99a gizonek osatzen dute; % 33a bigarren

sektorean dago, eta horren ehuneko 60a emakumeek osatzen dute; gainerako % 16a hirugarren sektorean dago, eta horren % 64a gizonak dira. Langabetuak populazio aktiboaren % 11a dira. Beraz esan daiteke populazioa nekazaritza eta bertako produktuak merkaturatzera dedikatzen dela, eta zereginak sexuaren arabera bereizten direla argi eta garbi.

Bestalde, azken urteotan San Adrianen izan den aldaketa, itxura-aldaketa, eta hazkundearen egiaztapena, sektore ekonomikoa egindako populazio aktiboaren banaketan ikus daitezke. Lehen sektoreak, gaur egun, ehuneko 12a besterik ez du ordezkaten eta praktikoki gizonezkoena da; bigarren sektoreak ehuneko 58a ordezkaten du eta horren herena emakumezkoek osatua da; gainerako populazio okupatua (% 23a) hirugarren sektorean dago eta bertan ere, emakumeek herena osatzen dute. Langabezi-tasa esanguratsua da, 1986an populazio aktiboaren % 22a, eta horietako % 67a emakumeek osatua baita.

Emakumeen langabezi-tasa altuak arrazoi desberdinak ditu. San Adrian izan da azken urte hauetan enplegua sortarazi duen eskualde osoko toki bakarra<sup>11</sup>. Bigarren sektorean izan den hazkundeak, ibilgailu, osagarri, erreminta eta garraio-sektoreko enpresa txikiak instalatzean oinarritua, gizonezkoen enplegua sortu du ia soil-soilik. Horrekin batera nekazaritza-elikagaien sektorearen eraldaketa eta espezializazioa izan dira, bai eta teknologia berriaren sarrera ere, emakumeen eskulana nahikoa murriztu dutenak.

11. Lodosako (eskualdea zentralizatzen duen herria) Enplegu Bulegoko pertsonak eta José Manuel Recartek, Iruñeko INEMgo estatistika behategiko teknikariak emandako orientabideak eta balorazioak eskertu behar ditugu.

Garapen handia izan ez duen zerbitzu sektorea gizonak okupatzen dute gehienbat, hiri zona gehienetan gertatzen denaren aldean. Administrazio postuen funtzioa, kasu gehienetan, zereginak banatzean eta operarioen esku lana nolabait kontrolatzean datza, eta horretarako gizonak nahia-go dira. Familiaren funtzioaren ikusmolde tradizionala, gizonen eta emakumeen zeregin familiarra, matxismoa, une honetan gertatzen ari den landa-gizartea industri-gizarte bihurtzea, eta lanak maskulinoztat eta femeninoztat hartzea, emakumeek ingurune honetan eta etorkizun hurbilean izango duten papera aurrikustea zaila egiten duten elkarreragineko faktoreak dira.

Garrantzitsua da ezaugarri bertsuak izan dituzten eta elkarrengandik hain gertu dauden herrialdeetan dauden orientabide desberdinak egiaztatzea. Industrializazioaren eta urbanizazioaren alde San Adrianen eman den bulkadaren aldean, Karkarren zeregin tradizionalei eutsi zaie. Azagran eta Andosillan lehen sektorea jaisten ari dela ikus dezakegu (bakoitzaren % 33a) baina aipatutako jaitsierak ez du, bi kasuetan, iturburu bera. Azagran kontserba fabriken instalazioa garatu den bitartean, eta azken urteotan, barazkien prestaketa eta izozketarako fabrikak ezarri badira ere (azalorea, leka, borraja, ilarra) Andosillan hamar fabrika itxi berri dira eta industri poligono baten instalazioa prestatzen ari dira, baina, arazo administratibo desberdinak direla-eta, ez da oraindik gauzatu.

Faktore hauek emakumeen enpleguan duten eraginak nabarmenak dira: Azagran, emakumeak lana duten pertsonen % 34a dira eta langabezia erregistratutako emakume kopurua

altua da. Honek esan nahi du, kanpaina desberdinen unearen arabera, kontserba fabrikekin lan-erlazioa dutela. Andosillan, emakumeen presentzia enpleguan % 18koa da, beste hiru herriena baino pitin bat baxuagoa, eta presentzia hori era berean banatzen da, hala bigarren sektorean, nola hirugarrenean.

Itxuraz eta neurri batean, aztertutako beste hiri-zonetatik asko bereizten ez den egoera izango genuke (Díez 1993); datuak aurrean ditugula esan dezakegunez, berrogei urtetik gorako eta beherako emakumeen artean belaunaldi-eten bat dago, lanmerkatuan duten partehartzeari dagokionez. Hirurogeita hamarrekoko hamarkadatik aurrera izan den modernizazioaren eta gizarte-aldaketaren hipotesiak (hezkuntza eskura izatearen garrantzia, ezkontzaren ikusmoldearen aldaketak eta amatasunerako dedikazioa) Euskal Herriko beste zonetarako balio duenak (Arregui 1989) ez du Erriberarako balio, edo behintzat, apur bat zehaztu behar da.

Horrenbestez, marko ekologiko honetan, beharrezkoa da lanaren espazioa nekazaritzarekiko "menpekotasuna/haustura" ikuspegitik aztertzea. Etxeko unitateek, nolabait, alokairu finkoak dituzte, alokairudun lanaren barruan badaude; baina horrelakorik ez dago beren dedikazio nagusia nekazaritza bada. Aurkitzen ditugun egoera desberdinek eta une honetan gertatzen ari diren aldaketek, lan-sistema eta famili-sistema aldatzen dituzte, bai eta elkarren arteko artikulazioa ere.

Karkar tradizioan ainguratuta dagoela esan dezakegu, iharduera nagusia nekazaritza delako, nahiz eta

pixkanaka jaisten ari den –1978an % 63a zen eta 1986an, % 51a–; baina oso garrantzitsua izaten jarraitzen du eta demografiaren geldialdia sortzen ari da.

Nekazari kopuru urriagoa izateak ez du esan nahi landutako lurrak urriagoak direnik; adina bezalako faktoreek –zahartzea– edo semerik ez izateak, lurrak beste nekazariei lagatzea edo saltzea dakarte, hauek, aldi berean, beren ondarea gehitzen dutelarik. Familien ondasunak semeren batean oinordetzen dira, edo, bitan, gehien jota ere, bi familientzat behar adina lan dagoenean. Alabek eta gainerako semeek kanpora atera behar dute, ikastera edo lan egitera, baliabide ekonomikoen arabera. Gaur egun, eta gazteen artean, ikasten jarraitzen duten emakume gazteen kopurua askoz ere altuagoa dela egiaztatu dugu; gizon gazteek landako lana beste aldi baterako lanekin txandakatzen dute edo inguruko fabriketan hasten dira lanean. Gizon gazteen koadriletan nahikoa normala da ikasketak negatiboki baloratzea.

Azagan, nekazarien kopurua jaisten ari bada ere, landarekiko menpekotasuna ia erabatekoa da, sustatu den industrializazio motagatik: elikagaien kontserbak eta izozketa. San Adrianen eta Andosillan, industria aniztu izanagatik, epe laburrera behintzat, famili ekonomiak ez dira landaren hain menpe izango. Herri hauetan, eta San Adrianen batez ere, etxeoandre urbanizatuaren estereotipoa agertzen ari da. Etxeko unitate

hauen sarrera finakoak senarraren alokairu soiletik datoz. Emakumeak espazio berrietan –espazio publikoetan (kafetegiak)– mugitzen hasiak dira, eta etxetik ateratzeko beharra sentitzen dute<sup>12</sup>.

Gaur egun, fabrika lan egiten duten emakumeen irudia nabarmentzen ari da eta landetan lan egiten duten emakumeena baino gehiago baloratzen da. Lehenengoak lanera apainduagoak joan daitezke eta «lan horrek ez du hainbeste estropeatzen»; «emakumea ez da landetara eraman behar, nire emazteak lan izugarria egin du bertan eta orain ez litzateke itzuliko; emaztea “trapu zahar bat” bezala gertatzen da eta ez du ezertarako gogorik, hobe da etxean fresko-fresko edukitzea»<sup>13</sup>.

Gizarte-ehunak gizonen eta emakumeen parte hartzearekin funtzionatzen du, adinaren arabera eta funtsezko antolamenduak diren etxea eta familiar oinarrituz. Azken hamarkada hauetan nekazaritzako lanak balioa galdu du eta datu hau, testuinguruaren ezaugarriak kontuan izanik, fabrikako lanarekin konpara daiteke. Hala eta guztiz ere, beste hiri-zonen inguruan egindako balorazioen aldean (Díez 1993) ez ditugu inoiz “independentzia pertsonalari buruzko” edo “lan postuari buruzko” aipamenak ikusi, emakumeen unibertso sinbolikoaren eta balore-sistemaren osagarri gisa, zona honetako eguneroko errealitatean; aldiz, beren alabentzat edo hiri-ingurunean bizi diren emakumeentzat garrantzitsutzat hartu dira.

12. 1990ean Etxekoandreen Elkarteak sortu zen, zonako lehen emakumeen elkarteak. Hori sortzera eraman zuten arrazoiak, bereziki, emakumeei etxetik ateratzeko ahalbidetuko ziren foroak eratzea izan zen eta herriko ingurunean gizarte-iharduerak sustatzea.

13. Nekazari baten etxean egindako elkarrizketa, berrogeita hamar urte inguruko senar-emazte bikotea aurrean zela.

Pertsonen jokaera, oro har, eta emakumeen jokaera, bereziki, azaltzeko eredu orokorrak aplikatzeko formularen aurrean, analisi mikrosozialek eta dinamikoek, konbinatzean, forma desberdinak sortzen dituzten faktore indibidualak (gizarte-klasea, hezkuntza eskura izatea, gizarteratze-ingurunea) eta orokorrak (ekonomikoak, sozialak,

historikoak) kontuan hartzeko beharra azaldu dute. Horrenbestez, R.E. Pahl-ek (1984) aldaketa-sentsazioaz hitz egiteko erabilitako kaleidoskopioaren irudia grafikoena eta zuzenena iruditzen zaigu, aurreko hogeita bost urteetan lan-mundua azaltzeko ereduaren erabili zena, alegia.

## Bibliografia

- Ardaiz Loyola, J., (1980): *Navarra. Elementos para su estudio regional*, Eusko Ikaskuntza, Burlata.
- Arregui, B., (1988): "Modernización y mujer en el País Vasco", in VV.AA., *La Mujer y la Palabra*, Baroja, Donosti, 51-93.
- , (1989): *The evolution of fertility in the Basque Country: 1950-1985* [Doktoretza-tesi argitaragabea. Southamptongo Unibertsitatea. Gizarte Zientzien Fakultatea].
- Canoves, G.; Garcia Ramon, M.D.; Solsona, M., (1989): "Mujeres agricultoras, esposas agricultoras: un trabajo invisible en las explotaciones familiares", *Revista de Estudios Agro-Sociales* 147, 45-70.
- Caro Baroja, J. (zuz.), (1984): *Navarra. Historia y arte - Tierras y Gentes*, Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea.
- del Valle, T. et. al., (1985): *Mujer Vasca: Imagen y Realidad*, Anthropos, Bartzelona.
- Diez Mintegui, C., (1993): *Estudio comparativo de las relaciones de género en la comarca Donostialdea y en la Ribera de Navarra, partiendo de la forma diferentes de participación de mujeres y hombres en las actividades laborales* [Doktoretza-tesi argitaragabea. EHU. Filosofi eta Hezkuntz Zientzien Fakultatea].
- Douglass, W., (1977): *Etxalar y Murélagas: oportunidad y éxodo en dos aldeas vascas*, Auñamendi arg., Donostia.
- Huici Urmeneta, V.; Sorrauren, M. eta Jimeno Jurio, J., (1982): *Historia Contemporánea de Navarra*, Txertoa, Donostia.
- Majuelo, E., (1989): *Luchas de clases en Navarra (1931-1936)*, Nafarroako Gobernua, Burlata.
- Narotzky, S., (1988): *Trabajar en Familia. Mujeres, hogares y talleres*, Edicions Alfons el magnánim, Valentzia.
- Pahl, R.E., (1984): *Divisions of labour*, Basil Blacckwell, Oxford (= Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril, 1991).
- Pérez-Agote, A., (1989): "Cambio Social e Ideológico en Navarra 1936-1982). Algunas Claves para su interpretación", *REIS* 46, 7-21.
- Piotet, F., (1987): "Las consecuencias de las nuevas formas de empleo en la vida familiar y en la organización social", *REIS* 46, 193-216.
- Sánchez Barricarte, J.J., (1990): *Estudio geográfico de un municipio de la Ribera de Navarra*, Azagrako Udala, Azagra.
- Vicente Mazariegos, J.I., (1981): "Las mujeres en la agricultura europea: elementos para su estudio sociológico", *Agricultura y Sociedad* 51, 205-230.
- Whatmore, S.J., (1989): "¿Ciclo vital o patriarcado?. Cambios en las divisiones del trabajo en la explotación agraria familiar por razón de sexo", *Revista de Estudios Agro-Sociales* 147, 7-43.